



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/05/26

Gernikako Arbolaren oinordeko baten landaketea Suediako Göteborg urian

Suediako Göteborg uriak Gernikako Arbolaren kimu baten landaketea jaso dau gaur, domeka, maiatzaren 26a. Jonsered Gardens izenekoetan, 1800etik datorren ondare botanikoa daukien eta gaur egun hazkunde ekologikoaren eta gizarte erantzukizunaren abangoardiako konbinazioaren eredu diran lorategietan, izan da.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Jose Antonio Agirre Lehendakaria jaso izanagaitik eta bera eta bere familia 1941eko bagilean, naziengandik iges eginez, Göteborgoko portutik Ameriketara urtetea errazteagaitik eskerrak emoteko oparitu deusie kimua uriari.

Gernikako Arbolaren oinordekoa landatzeko ekitaldian, Partille- Göteborgoko udalerriko agintariakaz batera (Pia Sundh eta Eva Carlsson), euskal folkloreko abestiak kantauko dituan Bilboko Garaizarko Matsorriak abesbatzak hartu dau parte. Raimundo Sarriegiren “Festara” e “Illunabarra”, Pedro Retanaren “Ai hori begi”, eta Jose Maria Iparragirrereren “Adio Euskal Herriari” abestu dabez.

Xabier Agirre, "Matsorrien" korukidea eta Lehendakariaren iloba denak, Agirrereren erbestean bizutako gora-beherak azaldu ditu. Ekitaldia 15:00etan hasi da, Ingmar Söhrman Göteborgoko Unibersidadeko irakasleak Picassok margotu eban “Guernica” artelan ezagunaren eta Gernikako Arbolak bakearen sinbolo moduan daukan garrantziaren ganean emongo dauen berbaldiagaz.

Jarraian, Urkullu Lehendakariak bidalitako mezua irakurri da eta era berean Ana Otadui, Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariaren oinordekoaren benekotasunaren ziurtagiria. Ekitaldia 17:00etan bukatu da, haretx historikoaren landare bat Suediako lurretan landatu ostean, Herrgårdsparken-en (Jonsered Gardens), hain zuzen be, “Gernikako Arbola” kanta abestuz.

Begoñako Errepublika Zaharreko Garaizarko Matsorriak Abesbatzak jarri deutso euskal musikea ekitaldiari, Suedian egiten ari dan kontzertu biraren barruan. Stockholmen eta Upsalan be arituko dira. Miren Zubietak zuzentzen dauen eta daborduko 32 urte bete dituan abesbatzak euskal folkloreko kantuak, bilbainadak, erlijio musikea eta nazinoarteko konposatzaileen piezak batzen dituan erreperitorio zabala dauka.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

26/05/2019

Plantación de un retoño del Árbol de Gernika en la ciudad sueca de Gotemburgo

La ciudad sueca de Gotemburgo ha acogido hoy domingo 26 de mayo la plantación de un retoño del Árbol de Gernika. El acto ha tenido lugar en Jonsered Gardens, jardines que cuentan con un patrimonio botánico que se remonta al año 1800 y que hoy día son un ejemplo de vanguardista combinación de cultivo ecológico y responsabilidad social.

Las Juntas Generales de Bizkaia han donado este retoño a la ciudad como tributo y en agradecimiento por haber acogido al Lehendakari José Antonio Agirre y haber facilitado su salida y la de su familia rumbo a América desde el puerto de Gotemburgo en junio de 1941, huyendo de los nazis.

En la ceremonia de plantación del esqueje del Árbol de Gernika han participado, junto con las autoridades de la municipalidad sueca de Partille-Gotemburgo (Pia Sundh y Eva Carlsson), el coro bilbaíno Garaizarko Matsorriak, que ha interpretado canciones del folklore vasco: “Festara” e “Illunabarra” de Raimundo Sarriegi, “Ai hori begi” de Pedro Retana, y “Adio Euskal Herriari” de José María Iparragirre.

Xabier Agirre, miembro de la coral de Garaizar y sobrino del primer Lehendakari, ha explicado las vicisitudes vividas por su tío en el exilio. El acto ha comenzado a las 15 horas con una conferencia de Ingmar Söhrman, profesor de la Universidad de Gotemburgo, sobre el famoso cuadro “Guernica” que pintó Picasso y sobre la importancia del Árbol de Gernika como símbolo de paz.

A continuación se han leído el mensaje enviado por el Lehendakari Iñigo Urkullu y el documento remitido por Ana Otadui, Presidenta de la Juntas Generales de Bizkaia, certificando la autenticidad del retoño. La ceremonia ha terminado a las 17 horas tras la plantación de un retoño del histórico roble en tierra sueca, concretamente en Herrgårdsparken (Jonsered Gardens), cantando “Gernikako Arbola”.

Garaizarko Matsorriak, la Coral de la Vieja República de Begoña, ha puesto música vasca al acto, dentro de una gira de conciertos en Suecia, en la que actuarán también en Estocolmo y en Upsala. Dirigido por Miren Zubieta, este coro, que ya ha cumplido 32 años, cuenta con un amplio repertorio que incluye canciones del folklore vasco, bilbainadas, música religiosa y piezas de compositores internacionales.